EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta–ordaina: 8/98
Internet
www.euskadi.net
Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI – 286 – 78 – VITORIA–GASTEIZ
Administración: c/ Donostia–San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI – 286 – 78 – VITORIA–GASTEIZ

# Bestelako Xedapenak

## KULTURA SAILA

### 5072

AGINDUA, 2008ko uztailaren 23koa, Kultura sailburuarena; horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko diru-laguntzak emateko modua arautu da 2008. urtean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39. artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du gazte-politikaren alorrean. Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzkoak, bestalde, gazteen alorreko ekintza zuzenak garatzeko eskumena, besteak beste, esleitu zien Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei bere 7. artikuluan. Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen. Dekretu horren 14.1.b) artikuluak Kultura Sailari izendatu zion gazteriaren arloa.

Kultura Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko gazteria eta gizarte-ekintzaren esparruan jarduerak suspertzeko lanetan dihardu beste zenbait erakunderekin batera. Helburu hori lortu nahian, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatze-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 5072

ORDEN de 23 de julio de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regula el régimen de otorgamiento de subvenciones a municipios y entidades supramunicipales de carácter local de la Comunidad Autónoma del País Vasco para impulsar la red de equipamientos juveniles en el ámbito local correspondiente al año 2008.

El artículo 10.39 del Estatuto de Autonomía del País Vasco dispone que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de política juvenil. Por su parte, el artículo 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus territorios históricos se reserva a las Instituciones Comunes del País Vasco las medidas de acción directa, entre otras, en el ámbito juvenil. Mediante el artículo 14.1.b) del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se atribuye al Departamento de Cultura el área de juventud.

El Departamento de Cultura comparte con otras Instituciones la labor de fomento de la actividad en materia de juventud de la Comunidad Autónoma. A tal fin, establece, a través de la presente Orden, los cauces para hacer efectivo su apoyo a municipios y entidades supramunicipales de carácter local de la Comunidad

ko laguntzak eskaintzeko bideak ezartzen dira agindu honen bitartez.

Autonomia Erkidegoko gazteriaren alorrean eman nahi den bultzada hori gazteria sustatzeko beste neurri baten moduan planteatzen du Kultura Sailak, hau da, Autonomia Erkidegoko udalei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei Euskadiko gazte-ekipamenduen sarea handitzeko eta hobetzeko laguntza moduan.

Hori horrela izanik, honako xedapen honen bitartez, bi helburu lortu nahi dira batez ere: alde batetik, diru-laguntza deialdi guztietan izan behar diren objetibotasun, partaidetza eta publizitate printzipioak bermatzeko oinarri legalak ezartzea. Bestetik, Kultura Sailak diru publikoak era egokian erabiltzen direla jakin ahal izateko bideak finkatzea.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, beren gazte-ekipamenduak eraiki edo hobetu nahi dituzten Autonomia Erkidegoko udalak eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeak diru-laguntzez baliatu ahal izateko moduko esparru zabala diseinatu nahi dugu. Muga bakarra, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan arlo honetara zuzendutako diru-kopurua bera izango da.

Hori dena kontuan izanik, honakoa

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Gazte-ekipamenduak eraikitzeko, handitzeko edo hobetzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautzea da agindu honen xedea, betiere ondorengo baldintza eta betebeharrak aintzakotzat izanik.

***2. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

Aurreko artikuluan aipatutako helburua betetzera zuzenduko diren baliabide ekonomikoak xede horretarako aurrekontuetan ezarritako kredituetatik etorriko dira, 1.821.000 euro alegia. Zenbateko hori, ordea, handitu ahal izango da, xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

***3. artikulua.***– Erakunde onuradunak.

1.– Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalek eta berezko nortasun juridikoa duten udalaz gaindiko mankomunitate edo erakundeek -indarreko legeriaren arabera udal batek baino gehiagok eratuta egon eta nortasun juridiko berezkoa dutenak- jaso ahal izango dituzte soil-soilik agindu honetan adierazten diren diru-laguntzak. Udalaz gaindiko erakunde horiek, bakoitzaren estatututan aurreikusitakoaren arabera, bidezko gaitasuna eta egokitasuna erakutsi behar dute, beren proiektuak behar bezala aurrera eramateko. Ez dira onuraduntzat joko beren estatutuetan gazte-politika erakundearen

Autónoma del País Vasco al objeto de impulsar la red de equipamientos juveniles en el ámbito local.

Dicho apoyo que mediante la presente Orden se pretende en el ámbito de Juventud de la Comunidad Autónoma se plantea por el Departamento de Cultura como un instrumento más que ayude a la promoción de la juventud, fomentando que municipios y entidades supramunicipales de carácter local de la Comunidad Autónoma contribuyan a ampliar y mejorar la red de equipamientos juveniles de Euskadi.

Así, la presente disposición se dirige fundamentalmente a la determinación, por un lado, de las bases legales mínimas que garanticen los principios de objetividad, concurrencia y publicidad, comunes a cualquier convocatoria de subvenciones, y, por otro, a la fijación de los mecanismos que permitan al Departamento de Cultura conocer el correcto destino de los fondos públicos.

A tenor de lo expuesto, se diseña un marco de apoyo lo suficientemente amplio para permitir el acceso al régimen de subvenciones a todos los municipios y entidades supramunicipales de carácter local de la Comunidad Autónoma que deseen construir o mejorar los equipamientos juveniles con la única limitación de la consignación presupuestaria que, a tal efecto, contenga los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

En virtud de lo cual,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto de la presente Orden la regulación del régimen de concesión de subvenciones destinadas a la construcción, ampliación o mejora de equipamientos juveniles, conforme a las condiciones y requisitos que a continuación se determinan.

***Artículo 2.***– Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto, cuyo importe es de 1.821.000 euros. Dicha cuantía podrá resultar incrementada de conformidad a lo dispuesto en la Disposición Adicional.

***Artículo 3.***– Entidades beneficiarias.

1.– Podrán acogerse a las subvenciones que se contemplan en esta Orden los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las mancomunidades o entidades supramunicipales con personalidad jurídica propia formalmente constituidas por varios municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco conforme a la normativa vigente. Tales entidades supramunicipales deberán ostentar, de conformidad con lo que dispongan sus estatutos, capacidad y objeto idóneos para acometer en su ámbito de actuación los correspondientes proyectos, no pudiendo ser destinatarias de las subvenciones

eskumenekoa dela jasota ez duten hainbat udalerriz osaturiko udalaz gaindiko erakundeak.

2.– Ez dira onuraduntzat joko udalaz azpiko eremuko erakundeak, ezta ere udalaz gaindiko erakunde baten zatia izan arren erakunde horren izenean eskatutako proiektuaren antzeko beste bat bere kasa aurkezten dutenak, beren izenean aurkezten duten hori udalaz gaindiko erakundearenean atxikita egon bazitekeen.

3.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, laguntza publikoak lortzeko zigorrik duten erakundeek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute diru-laguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigorrik duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

***4. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen alorrak eta jasotzerik ez dutenak.

1.– Gazte-ekipamenduen sarea indartzeko jarduketen artean, honako hauek joko dira laguntza jasotzeko modukoak:

– Berariaz gazte-ekipamenduak izango dituzten higiezinak eraiki, eraberritu, egokitu edo handitzeko lanak egiteko profesional gaituek landutako proiektuen erredakzio-lanen ondoriozko gastuak, bai eta lan horiek exekutatzeak sortzen dituen gastu edota kostuak ere. Gastu horiek guztiak 2008ko ekitaldian, 2008-2009 aldian edo 2008-2010 aldian egin daitezke.

– Gazte-ekipamendurako material inbentariagarria erosteko gastuak, baina soilik 2008an egin badira.

2.– Aurreko puntuko bi aukeretatik lehenengoari eusten dioten eskariek lehentasuna izango dute, bigarren aukerakoari eusten dioten eskarien aurretik.

3.– Erakunde eskatzaileek aurkezten dituzten proiektuak lehen adierazitako modalitateetako batekoak edo bietakoak izan daitezke, eta bereizita aurkeztu beharko dituzte proiektuari buruzko sarrera/inbertsioen eta gastu/kostuen aurrekontua, bai eta ezartzen diren beste dokumentu guztiak ere.

4.– Nolanahi ere, erakunde eskatzaileak gutxienez kostu osoaren % 30 finantzatu beharko du bere funts propioekin. Ez dira horretan sartuko udalerriz gaindiko erakundea osatzen duten udaletik kanpoko instituzio publikoek emandako diru-hornidurak, diru-laguntzaren helburua betetzeko asmoz jaso badira.

las entidades supramunicipales constituidas por varios municipios en cuyos estatutos no figure la política juvenil como competencia de la entidad supramunicipal.

2.– No podrán tener la consideración de beneficiarias las entidades de ámbito territorial inferior al municipal, ni los municipios que, formando parte de una entidad supramunicipal, soliciten por su cuenta ayuda para un proyecto similar al solicitado por la entidad supramunicipal de la que formen parte cuando aquel proyecto pudiese haberse incorporado al de la entidad supramunicipal.

3.– Durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, no podrán concurrir a la presente convocatoria las entidades sancionadas con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni las que se hallen incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las prohibiciones que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

***Artículo 4.***– Áreas subvencionables y exclusiones.

1.– Dentro de las actuaciones dirigidas al refuerzo de la red de equipamientos juveniles, se considerarán gastos subvencionables:

– Gastos derivados de la redacción de proyectos elaborados por profesionales capacitados/as para obras de edificación, reforma, adecuación o ampliación de inmuebles destinados específicamente a acoger equipamientos juveniles, así como los gastos y/o coste derivados de la ejecución de dichas obras, bien durante el ejercicio 2008, bien durante el periodo 2008-2009 o el periodo 2008-2010.

– Gastos derivados de la adquisición de material inventariable para equipamientos juveniles correspondientes únicamente al año 2008.

2.– Tendrán carácter preferente para acceder a las ayudas las solicitudes referidas a la primera de las opciones de gasto enunciadas en el párrafo anterior respecto a la segunda.

3.– Los proyectos presentados por las entidades solicitantes podrán venir referidos a una o a las dos modalidades señaladas y deberán acompañarse por separado del correspondiente presupuesto de ingresos y/o inversiones y gastos y/o coste relativos al proyecto, acompañado de cuantos otros documentos se establecen.

4.– En todo caso, los proyectos deberán contar, como mínimo, con una financiación propia de la entidad solicitante del 30% del coste. No podrá incluirse como tal financiación las dotaciones procedentes de cualquier otra institución pública ajena al municipio o municipios integrantes de la entidad supramunicipal solicitante, siempre que se hubiesen percibido por cualquier concepto directamente vinculado al objeto para el que se solicite la subvención.

5.– Ez dira inola ere diruz lagunduko erakunde eskatzailearen pertsonal propioaren gastuak.

6.– Artikulu honen arabera ez laguntzeko moduko gastutzat jotzen diren horiek agertzen badira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan, edota laguntzeko modukoak izanik ere ezarritako muga gainditzen badute, Epaimahai Kalifikatzaileak ezabatu edo araztu egingo ditu gastuok, diru-laguntza kalkulatzeko beharrezkoa den oinarrizko gastu-aurrekontua zehaztu ahal izateko.

7.– Agindu honen aplikazio-esparrutik kanpo gelditzen dira jarduketa hauek:

a) Izaera edo helburua kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzaren jarduera-esparruekin zuzeneko zerikusia ez dutenak, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuak xedatutakoari jarraiki.

b) Patrimonializa daitezkeen elementuetan edo material inbentariagarrian inbertsioak edo gastuak egiteko xedea ez duten jarduerak.

c) Destinatzaileak nortzuk diren argi eta garbi identifikaturik ez dutenak.

d) Eskabide batean jarduera bat baino gehiago sartu eta horiek izaera ezberdinetakoak diren kasuetan, ez bada banaka azaltzen jarduera bakoitzari zein helburu, destinatzaile eta inbertsio/diru-sarreren eta gastu/kostuen aurrekontu dagokion.

e) Udal titularitatea, administrazio-batzarrarena, udal mankomunitatearena, Eusko Jaurlaritzarena edo horren menpeko beste edozein erakunderena ez duten lokaletako gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko egitasmoak, bai eta indarrean dagoen legeria betetzen ez duten lokaletakoak eta Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak onartutako «Gazte ekipamenduak definitzeko eta sailkatzeko proposamena» dokumentuan jasotako tipologiekin bat ez datozen lokaletakoak ere (www.gazteaukera.euskadi.net/gaztebehatokia).

***5. artikulua.***– Proiektuak gauzatzeko epea.

1.– Diruz lagunduko diren proiektuak 2008ko ekitaldian hasita egon behar dira edo ekitaldi horretan hasi, eta bukatu, honako egun hauetan beranduenez:

– Gazte-ekipamenduetarako erosi behar den material inbentariagarria: 2008ko abenduaren 31 baino lehen;

– 2008an idatzi beharreko proiektuak edota egin beharreko lanak: 2008ko abenduaren 31 baino lehen;

– 2008-2009 aldian idatzi beharreko proiektuak edota egin beharreko lanak: 2009ko abenduaren 31 baino lehen;

5.– En ningún caso serán subvencionables los importes que se correspondan con gastos de personal propio de la entidad solicitante.

6.– En caso de que el presupuesto presentado por la entidad solicitante incluyera gastos y/o costes considerados como no subvencionables en el presente artículo, o que siéndolo superasen el límite fijado para ellos, el Tribunal Calificador procederá a su eliminación o depuración al objeto de determinar el presupuesto de gastos y/o coste subvencionable que servirá de base para la determinación del importe de la subvención.

7.– Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente Orden las siguientes actuaciones:

a) Aquéllas que por su naturaleza u objeto no guarden relación directa con ninguno de los ámbitos de actuación que tiene atribuidos la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco en virtud del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura.

b) Aquéllas cuyo objeto no sea la realización de inversiones o gastos en elementos patrimonializables o en material inventariable.

c) Aquéllas que no tengan claramente identificados/as los/as destinatarios/as.

d) Aquéllas en las que no se especifique debidamente para cada una de las actuaciones presentadas los objetivos, destinatarios/as y presupuesto de inversiones y/o ingresos y gastos y/o coste en el caso de que se incluyan actuaciones de distinta naturaleza en una misma solicitud.

e) Los proyectos para impulsar la red de equipamientos juveniles que correspondan a locales que no sean de titularidad municipal, o de una junta administrativa, o de una mancomunidad de municipios, o del Gobierno Vasco o cualquier organismo dependiente del mismo, así como a locales que no cumplan la correspondiente legislación aplicable o a locales cuya tipología no se corresponda con alguna de las recogidas en el documento «Propuesta de definición y clasificación de equipamientos juveniles», aprobado por la Junta Rectora del Plan Joven (www.gazteaukera.euskadi.net/observatoriojuventud).

***Artículo 5.***– Plazo para realizar los proyectos.

1.– Los proyectos objeto de subvención deberán estar ya iniciados u iniciarse dentro del ejercicio 2008 y finalizar, como máximo:

– En el caso de adquisición de material inventariable para equipamientos juveniles: antes del 31 de diciembre de 2008;

– En el caso de la redacción de proyectos y/u obras a ejecutar en 2008: antes del 31 de diciembre de 2008;

– En el caso de la redacción de proyectos y/u obras a ejecutar en el periodo 2008-2009: antes del 31 de diciembre de 2009;

– 2008-2010 aldian idatzi beharreko proiektuak edota egin beharreko lanak: 2010eko abenduaren 31 baino lehen.

2.– Behin diru-laguntza emanda proiektua gauzatzeko epea ezartzen denean, epe hori luzatu egin ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendariaren ebazpen baten bitartez. Horretarako, erakunde interesdunak luzapena eskatu beharko du, hasieran emandako epea amaitu baino lehen. Eskabidearekin batera, luzapenerako arrazoiak justifikatzeko idatzi bat aurkeztuko du, baita nahi duen epearen proposamena ere. Dena den, epe berri horren muga 2011ko abenduaren 31 izango da.

***6. artikulua.–*** Epaimahai kalifikatzailea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko Epaimahai Kalifikatzailea eratuko da. Hauek izango dira bertako kideak:

– Lehendakaria: Néstor Arana, Gazteria eta Gizarte Ekintza arduraduna. Ordezkoa: Rosa Gelbentzu, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako teknikaria.

– Epaimahaikidea: F. Javier Gutierrez, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako teknikaria. Ordezkoa: Bakarne Zuazua, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako Prospekzio Arloaren arduraduna.

– Epaimahaikidea: Josu Gerediaga, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako teknikaria; idazkari moduan jardungo du. Ordezkoa: Agurtzane Iriondo, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako teknikaria.

2.– Eskarien azterketa eta ebazpen-proposamena: artikuluan aipatzen diren balorazio- eta esleipen-irizpideak kontuan hartuta, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendariari. Gainera, beharrezko iritzitako dokumentazio guztia eskatu ahal izango dio eskatzaileari, betiere aldez aurretik jakinarazita eta 13. artikuluan finkatutako epea emanda.

***7. artikulua.–*** Laguntzak banatzeko sistema.

1.– Deialdi honi lehiaketa bidez emango zaio ebazpena. Eskabideak lehentasunen arabera sailkatu eta ordenan jartzeko orduan, segidan ezarritako hautaketa- eta balorazio-irizpideak hartuko dira aintzakotzat. Nolanahi ere, laguntza jasotzeko beharrezkoa izango da 40 puntutik gora jasotzea.

2.– Kasu bakoitzean eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, Epaimahai Kalifikatzaileak eskatutako zenbatekoaren ehuneko jakin bat ematea proposatuko du; hain zuzen, ezarritako irizpideak aplikatu ostean lortzen diren puntuen araberakoa izango da ehuneko hori. Aurrekontua eta aurkeztutako gaine-

– En el caso de la redacción de proyectos y/u obras a ejecutar en el periodo 2008-2010: antes del 31 de diciembre de 2010.

2.– Cuando, una vez concedida la subvención, se haya establecido un plazo para realizar el proyecto, dicho plazo podrá ser prorrogado mediante Resolución del Director de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Para ello, la entidad interesada deberá presentar una solicitud de prórroga previamente a la finalización del plazo concedido, a la que se acompañará un escrito justificativo de las razones que motivan dicha solicitud, así como una propuesta del nuevo plazo previsto. En cualquier caso, este nuevo plazo no podrá superar el 31 de diciembre del año 2011.

***Artículo 6.–*** Tribunal Calificador.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal Calificador compuesto por los siguientes miembros:

– Presidente: Néstor Arana, Responsable de Juventud y Acción Comunitaria. Suplente: Rosa Gelbentzu, técnica de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

– Vocal: F. Javier Gutiérrez, técnico de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. Suplente: Bakarne Zuazua, Responsable Área de Prospección de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

– Vocal: Josu Gerediaga, técnico de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria, quien además actuará como Secretario. Suplente: Agurtzane Iriondo, técnica de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

2.– Análisis de la solicitud y Propuesta de Resolución: el Tribunal Calificador, en base a los criterios de valoración y adjudicación establecidos en el artículo 8, elevará la oportuna propuesta de resolución al Director de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, pudiendo, a aquellos efectos, requerir a la persona solicitante, previa comunicación a ésta y otorgamiento de un plazo igual al previsto en el artículo 13, cuanta información y documentación complementaria estime necesarias.

***Artículo 7.–*** Sistema de reparto de las ayudas.

1.– La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas en cada una de las diferentes áreas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de selección y valoración fijados a continuación, concediéndose una ayuda sólo a aquéllas que hayan obtenido una puntuación superior a 40.

2.– Para la determinación del importe de la subvención en cada caso, el Tribunal Calificador propondrá la concesión de un porcentaje sobre el importe solicitado, que dependerá de la puntuación obtenida tras la aplicación de los criterios establecidos. Cuando en base al presupuesto y el resto de la documentación presentada

rako dokumentazioa aztertu ondoren egiaztatzen bada aurreikusitako sarrerek gastuak gainditzen dituztela, eskatutako zenbatekoa murriztu egingo da, jardueraren aurrekontua orekatuta geratu arte egingo da murrizketa hori. Dena den, ebatzi gabe dauden diru-laguntzak jasotzeko beste eskabide batzuk daudelako gertatzen bada gainfinantzaketa, erakundeei eskatu zaizkien zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira; agindu honen babesean eskatutakoa ere murriztuko da, aurrekontua orekatuta gelditu arte. Halaber, aurrekontuan diru-laguntza jaso ezin duten gastuak sartu direla egiaztatzen bada eta ezin bada zehaztu eskatu den zenbatekoaren eta berez dituzten sarreren zein kopuru sar daitekeen horien barruan, eskatutako zenbatekoa eta berezko sarrerak proportzionalki murriztuko dira.

3.– Epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamenean zehaztu egingo du zein jarduerak jasoko duen laguntza eta zeinek ez. Berdin egingo du epaimahai kalifikatzaileak eskabide berean izaera ezberdinetako jarduerak badaude eta denak laguntzen ez badira edo denak baztertzen ez badira, hots, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamenean zehaztu egingo du zein jarduerak jasoko duen laguntza eta zeinek ez.

4.– Epaimahai Kalifikatzaileak, lehenengo eta behin, berariaz gazte-ekipamenduak izango dituzten higiezinak eraiki, eraberritu, egokitu edo handitzeko lanak egiteko profesional gaituek landutako proiektuen erredakzio-lanak, bai eta lan horiek exekutatzeak sortzen dituen gastu eta kostuak ere, ordaintzeko eskabideei erantzungo die. Horiek guztiak, dena den, 2008ko ekitaldikoak izango dira. Jarraian, baldin atal honetarako diru-zenbatekorik geratzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileak gazte-zerbitzuetako ekipamendurako material inbentariagarria erosteko kostuak edo gastuak (2008ko ekitaldikoak) ordaintzeko eskabideak aztertuko ditu. Gero, 2009ko ekitaldian gauzatzeko proiektuen edota lanen eskabideak aztertuko dira, baldin eta proiektu edota lan horiek 2008ko ekitaldian hasita bazeuden; azkenik, 2010eko ekitaldian gauzatu beharreko proiektu edota lanen eskabideak aztertuko dira, aurrekoak bezala betiere proiektu edota lan horiek 2008ko ekitaldian hasita bazeuden.

***8. artikulua.***– Balorazio-irizpideak.

1.– I. eranskinean adierazitako dokumentazioaz gainera, erakunde eskatzaileak aurkeztu duen proiektua egokiro baloratzeko beharrezkoa irizten duen informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio Epaimahai Kalifikatzaileak.

2.– Deialdi honetara aurkezten diren toki-erakundeek jaso dezaketen diru-laguntza honako irizpide hauek aplikatzearen ondorioz sortutakoa izango da:

a) Eskabidea aurkeztu duen erakundeak jarduera horretarako dituen sarreren eta jarduerarako aurrekontu osoaren arteko proportzioa, berezko baliabideen ehu-

se constate que los ingresos previstos superan a los gastos previstos, se reducirá el importe solicitado hasta equilibrar el presupuesto de la actividad. No obstante, en el caso de que la sobrefinanciación sea debida a la existencia de otras solicitudes de subvención no resueltas, se reducirán proporcionalmente los importes solicitados a las diversas entidades, incluido lo solicitado al amparo de la presente Orden, hasta equilibrar el presupuesto. Asimismo, cuando se constate que en el presupuesto se incluyen gastos no subvencionables y no pueda determinarse qué parte del importe solicitado y de los ingresos propios corresponde a ellos, se reducirá el importe solicitado y los ingresos propios proporcionalmente.

3.– El Tribunal Calificador distinguirá en la propuesta de concesión las actuaciones a subvencionar y las denegadas. En caso de que en una misma solicitud se incluyan varias actuaciones que sean de naturaleza distinta y que no todas sean subvencionables o no hayan sido denegadas todas, igualmente el Tribunal Calificador distinguirá en la propuesta de concesión las actuaciones a subvencionar y las denegadas.

4.– El Tribunal Calificador atenderá primeramente las solicitudes relativas a gastos derivados de la redacción de proyectos elaborados por profesionales capacitados/as para obras de edificación, reforma, adecuación o ampliación de inmuebles destinados específicamente a acoger equipamientos juveniles, así como los gastos y/o coste derivados de la ejecución de dichas obras, en todo caso, correspondientes al ejercicio 2008. A continuación y siempre que quede dotación económica disponible para este apartado, el Tribunal Calificador atenderá las solicitudes para gastos derivados de la adquisición de material inventariable para equipamientos juveniles correspondientes al ejercicio 2008. A continuación se atenderán las solicitudes para proyectos y/u obras a ejecutar en el ejercicio 2009 siempre y cuando dichos proyectos y/u obras estuvieran ya iniciados en el ejercicio 2008, y, finalmente, se atenderán las solicitudes para proyectos y/u obras a ejecutar en el ejercicio 2010, igualmente siempre y cuando dichos proyectos y/u obras estuvieran ya iniciados en el ejercicio 2008.

***Artículo 8.***– Criterios de valoración.

1.– Además de la documentación contemplada en el anexo I, el Tribunal Calificador podrá requerir a las entidades solicitantes aquella información y documentación complementaria se estime necesaria para la correcta valoración de los proyectos presentados.

2.– El importe de la subvención a conceder a los entes locales que se acojan a la convocatoria regulada en la presente será el que resulte de la aplicación de los criterios que a continuación se indican:

a) La proporción entre los ingresos propios de la entidad solicitante destinados a la actividad respecto al presupuesto total de dicha actividad, valorándose el

nekorik handiena baloratuz: % 20 gehienez. Ez dira aintzat hartuko, aurkeztutako aurrekontuan, erakunde eskatzailearen pertsonal propioaren kostuak edo gastuak. Erakunde pribatuek egindako ekarpen ekonomikoak berezko sarreratzat hartuko dira baldin eta bere kapitalean administrazio publikoen parte-hartzerik ez badago.

b) Proiektuaren hartzaile direnen adin-tartea, kontuan hartuta, nolanahi ere, gutxieneko adina 14 urte dela, eta gehienekoa 30 urte: % 20 gehienez.

c) Beste administrazio publiko batzuekin koordinatzeko mekanismoak: % 15 gehienez.

d) Proiektuak zenbateraino bultzatzen duen garatzen deneko gazteriaren arloa: % 20 gehienez.

e) Erakunde eskatzaileak hurrengo ekitaldiei begira laguntzagai diren ekintzekin jarraitzeko hartzen duen konpromiso-maila: % 10 gehienez.

f) Proiektuaren lurralde-eremua edo mugakide diren ingurune edo eskualdeetako kolektiboetan izan dezakeen eragina: % 10 gehienez.

g) Proiektuan genero-ikuspegia integratzea: % 5 gehienez.

***9. artikulua.***– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Oro har, balorazio-irizpideetan lortutako puntuazioa erabiliko da proiektu bakoitzari esleitu beharreko diru-zenbatekoa zehazteko. Puntuazio altuena lortzen duten proiektuek laguntza-ehuneko handiagoa jasoko dute eskatutako zenbatekoarekiko erreferentzia hartuta.

2.– Diru-laguntzak banatzerakoan proiektuen bideragarritasuna bermatu beharko da, balorazioa egiteko erabili diren ezaugarriak eta garrantzia kontuan hartuta. Ez da diruz lagunduko deialdi honen arabera legokiokeen laguntzaren aurrekontu-gastuen % 51 edo hortik gora estalita ez duen proiekturik.

3.– Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, bakarrik hartuko dira aintzat eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean benetan aitortuta edo bermatuta dauden inbertsio/diru-sarrerak.

4.– Jarduketak egiteko gastu/kostuen aurrekontuaren % 70eraino irits daiteke diru-laguntza.

***10. artikulua.***– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuek helburu berbererako emandakoekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik izanez gero, eman beharreko diru-laguntzatik kendu egingo

mayor porcentaje de medios propios: hasta un máximo del 20%. Para ello, no se tendrá en cuenta respecto al presupuesto presentado el coste o los gastos de personal propio. Tendrán la consideración de ingresos propios las aportaciones económicas procedentes de entidades privadas en cuyo capital no participen administraciones públicas.

b) Tramos de edad a los que se dirige el proyecto, teniendo en cuenta únicamente, en cualquier caso, como límite mínimo los 14 años y como límite máximo los 30 años: hasta un máximo del 20%.

c) Mecanismos de coordinación con otras Administraciones Públicas: hasta un máximo del 15%.

d) La contribución del proyecto a la difusión del área de Juventud en la que se desarrolla: hasta un máximo del 20%.

e) Compromiso de la entidad solicitante de proseguir con las actividades para las que solicita la ayuda en ejercicios futuros: hasta un máximo del 10%.

f) Ámbito territorial del proyecto o influencia en colectivos de áreas o zonas limítrofes: hasta un máximo del 10%.

g) Integración de la perspectiva de género en el proyecto: hasta un máximo del 5%.

***Artículo 9.***– Criterios de cuantificación de las ayudas.

1.– A fin de determinar la cuantía que a cada proyecto corresponda, con carácter general, se atenderá a la puntuación obtenida conforme a los criterios de valoración. Aquellos proyectos que hayan obtenido una mayor puntuación serán susceptibles de percibir un mayor porcentaje de ayuda sobre la cantidad solicitada.

2.– En el reparto de las subvenciones deberá garantizarse la viabilidad del proyecto presentado, conforme a la dimensión y características bajo los cuales ha sido valorado. No podrán otorgarse subvenciones a ningún proyecto que, tomando en cuenta la cuantía que le pudiera corresponder en virtud de las ayudas previstas en esta convocatoria, no tenga una cobertura de gastos de, al menos, del 51% del presupuesto presentado.

3.– A los efectos previstos en el párrafo anterior, tan solo se computarán las inversiones y/o ingresos que se encuentren efectivamente reconocidos o garantizados a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

4.– La subvención podrá alcanzar hasta el 70% del presupuesto de los gastos y/o coste de realización de las actuaciones que sean objeto de subvención.

***Artículo 10.***– Compatibilidad de las subvenciones.

1.– Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con cualquier otra que, teniendo el mismo fin, pudiera ser otorgada por cualquier otra entidad pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se

da dagokion kopurua, dagokion gehienezko kopurura egokitu arte.

2.– Erakunde eskatzaileek laguntzagai diren programetarako jaso edo eskatu dituzten beste eskabide guztien zerrenda aurkeztu beharko diote Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzari, erakunde emailea eta emandako diru-kopurua aipatuta -erantzunaren zain badago, eskaturiko diru-kopurua-. Horrelakorik jaso edo eskatu ez badu, hori adierazten duen dokumentua aurkeztu beharko du.

***11. artikulua.***– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

2.– Eskabideak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendariari zuzenduko zaizkio eta Kultura Saileko dagokion lurralde zerbitzuan aurkeztuko dira zuzenean (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz; Kale Nagusia 85, Bilbao; Andia kalea 13, Donostia-San Sebastián) edo 30/1992 Legeko 38.4. artikuluan ezarritako edozein prozedura beteta (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa). Horiekin batera, hurrengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

– Eskabidea aurkeztu duen erakundearen datuak, eskabidearen xede den arloa, laburpen ekonomikoa eta ordainketak egiteko datuak. Horretarako, deialdi honen I. eranskinean jasotako eskabide inprimakian eskatutako datuak hartuko dira kontuan. Eskabide inprimakia behar bezala bete behar da eta eskabidea aurkeztu duen erakundean legezko ordezkaria den pertsona fisikoak sinatu beharko du.

– Erakundearen legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta erakundearen IFZaren fotokopia. Dokumentazio hori noizbait Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari aurkeztu bazaio, ez da beharrezkoa izango berriz aurkeztea. Kasu horretan, erakundearen legezko ordezkariak dokumentazio hori indarrean dagoela azaltzen duen aitorpena aurkeztu beharko du; baita noiz aurkeztu zen eta aurkezteko aukeratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren organoa edo bulegoa ere, I. eranskineko ereduaren arabera.

– Zinpeko edo ardurapeko aitorpena; hemen jaso beharko da erakunde eskatzaileak ez duela diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapenik jaso, eta ez daukala horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko

reducirá el importe de la subvención concedida hasta el límite máximo que corresponda.

2.– Las entidades solicitantes deberán comunicar a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco la relación de cualesquiera otras ayudas o subvenciones percibidas o solicitadas para los programas presentados a subvención, con mención de la entidad que las otorgue y la cantidad concedida o, en caso de estar pendiente de resolución, la cantidad solicitada. En caso contrario, deberán aportar un documento declarativo de no haber solicitado o percibido ninguna otra ayuda al efecto.

***Artículo 11.***– Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes al amparo de la presente convocatoria será de un mes a contar desde el día que surta efectos la presente Orden.

2.– Dichas solicitudes habrán de dirigirse al Director de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, y se presentarán en cualquiera de los Servicios Territoriales de Cultura existentes en cada uno de los Territorios Históricos, sitos en la calle Donostia-San Sebastián 1, de Vitoria-Gasteiz, en la Calle Gran Vía 85, de Bilbao, y en la calle Andía 13, de Donostia-San Sebastián, bien directamente bien por cualquiera de los procedimientos previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, junto con la siguiente documentación:

– Datos de la entidad solicitante, área para la que presenta la solicitud, resumen económico y datos para el libramiento de pagos, según se especifica en el impreso de solicitud que se recoge en el anexo I de la presente convocatoria. Dicho impreso de solicitud, debidamente rellenado, deberá estar firmado por la persona física que tenga la representación legal de la entidad solicitante.

